# araba euskaraz '24

# mugaezin



Ekainak 16, Olarizu

KUPSA
coatings

CAFE GARAI Pub
oion - araba

» Babestu **BERRIA**

Zure babes ekonomikoa ezinbestekoa zaigu euskarazko kazetaritza independente eta kalitatezko egiten segitzeko. 2025erako 3.000+ izan gaitezen,
**egin zure ekarpena:**

Urteko ekarpena
100€
(0,27 euro egunean)

Gazteen* ekarpena
30€
(*) 30 urtetik beherakoak

aldi hau
kontatzeko
berria

Egin zure ekarpena

berria
aldi hau
kontatzeko

Telma
Peluqueros
SONIA ALONSO GARCIA
TFNO: 945 601 224
AVDA DE NAVARRA 24 - 01320 OYON ( ALAVA)

Héctor Oribe
Restaurante
Jatetxea

araba euskaraz '24
mugaezin

# Aurkibidea

Arabako Ikastolen lehendakariaren agurra ........................ 4
San Bizente Ikastolaren agurra ........................................ 6
San Bizente Ikastola ........................................................ 8
Hezkuntza Proiektuak ............................................... 12
Arabako Ikasleen II topaketa ........................................... 18
Araba Euskaraz 24 ........................................................ 20
Logoa, eta leloa ........................................................ 21
Abestia.................................................................... 22
Elkarrizketa ............................................................ 23
Urte osoko ekintza .................................................... 25
Araba Euskaraz eguneko egitaraua............................ 26
Mundutik S.B.I-ra.......................................................... 28
S.B.I-tik mundura .......................................................... 33
Agurreko bertsoa........................................................... 35

# Zortziak bat

Mugarik gabe eta mugaezin irudikatzen dugu gure hizkuntza. Mugarik gabe, ez bada ortzimuga, mugarriz mugarri, euskararentzako espazio zabalagok irekiz. Mugarik gabe, euskaraz hezi eta hazi nahi duten guztientzat. Euskal Herriaren hego-mendebaldeko bazterretik ari gara, bazter-herritik, euskarazko hatsa igorriz erdigunera. Baina erdigunean ere bagaude, eta indar zentripetua eragiten dugu, hegoaldeko nafarrak eta errioxarrak, baita etorri berriak ere erakarriz gurera. **Mugaezin**; horrela, mugagabean, dugu 2024ko Araba Euskarazen leloa. Su planetak eta Gar izarrak erakusten digute bidea, Lurretik 26 argi-urtera. Euskara unibertsala baita!

**ARABAKO ZORTZI IKASTOLAK AUZOLANEAN**

Ikastola guztiok batera, guztiok batuta. **Arabako zortzi ikastolak elkarrekin aritu gara aurten ere** Araba Euskaraz antolatzen. Azken bi ekitaldietan martxan jarri dugun ereduari jarraipena emango diogu, auzolana eta elkarlana ardatz hartuta, esku esku, buruz buru, gure jakintza elkarbanatuz, gure harremana aberastuz. Eta azken bi urteotan bezala, Gasteizko **Olarizun ospatuko dugu ekainaren 16an 2024ko Araba Euskaraz.**

Lan asko izan dira elkarlanean kudeatu beharrekoak. Lan horiek guztiak, bistan da, samurrago egin dira ikastola guztiok batuta, eta denon artean koordinatuta. Ikastola guztion artean egin dugun auzolan honi esker, ikastolen proiektuak ezagutarazi eta bultzatu nahi ditugu. Baina, era berean, **euskarari eta euskal kulturari agertoki handi bat eskaini nahi diegu. Guztion lana, guztion konpromisoa, ikastolen mugimenduarekiko, Arabarekiko, euskararekiko eta euskal kulturarekiko.** Guztion lana eta esfortzua, ikastolen proiektuak aurrera ateratzeko. Urte honetako Araba Euskarazen antolaketarekin **Oiongo San Bizente ikastola** lagundu nahi dugu. San Bizente ikastolaren hezkuntza proiektua ezagutzera ematearekin batera, Oionen eta Arabar Errioxan euskararen erabilpena aldarrikatzeko eta bultzatzeko, eta erabilpen eremuak zabaltzeko baliatuko dugu arabar euskaltzaleon jaia.




**OIONDIK ERE ARABA EUSKALDUNTZEN**

1976. urtean sortua, ia mende erdi bat ari da San Bizente ikastola Oionen errotuta lanean. 0-16 urte bitarteko ikasleak hartzen ditu, eta uneotan 207 familiak, 301 ikaslek, 34 irakasle eta langilek osatutako komunitatea da ikastolarena. Funtsezko bi oinarrik ematen diote Oiongo San Bizente Ikastolari berezko nortasuna. Alde batetik, kooperatiba da, gurasoek antolatua, beren seme-alabei hezkuntza euskaldun eta kalitatezkoa eskaintzeko, kudeaketa demokratiko eta garden baten bitartez. Bestetik, kalitatezko zerbitzua eskaintzea da ikastolaren xedea. Bi ezaugarri horiek ematen diote San Bizente Ikastolari bere berezko nortasuna: Ikastetxe euskalduna, integratzailea, akonfesionala, hezkidetzagilea da, eta metodologia parte-hartzailea eta kudeaketa irekia eskaintzen dituena Oiongo eta inguruko familia guztientzat. Izan ere, inguruko herrietatik ere jasotzen ditu ikasleak, bai eta Errioxara bizitzera joandako zenbait familiaren seme-alabak eta zenbait ikasle nafar ere.

San Bizente ikastolak harreman estua dauka Arabako beste zazpi ikastolekin, baina berezki, Arabar Errioxako beste bi ikastolekin, Bastida eta Assarekin. Hiruen artean lortu dute lau-bost hamarkadatan eskualde honetan euskaldun eta ia euskaldunak %4 izatetik, %40tik gora izatea. **Ez da erraza izan eta oraindik ere zaila izaten jarraitzen du** baina gure gogoa, borondatea eta grina ere mugaezinak dira. Duela berrogeita hamar urte, guraso, irakasle eta ikasle aitzindariek abiatutako ikastola mugimendua guztiz errotuta dago Arabar Errioxan. Eta gure gogo, borondate eta grina mugaezinarekin lortuko dugu Arabar Errioxa euskalduna, Euskal Herri euskaldunean.

**UNAI MENDIZABAL**
Araba Euskaraz elkarteko Lehendakaria


Arrolan
OLIBA-OLIO BIRJINA ESTRA
T: 664 481 660/ grupoarrolan@gmail.com
@aceitesarrolan.


ADONIX
BAR ADONIX


FAMILY
HEREDADADUNA
WINES
Bodegas Heredad de Aduna
bodegas@heredadaduna.com
heredadaduna.com
945 623 343
Matarredo de Enmedio, 39 - 01307
Samaniego - Rioja Alavesa - Álava


FK
FRUTAS KAJE


EUSKARA
IRRIKA
ika euskaltegia
errioxa


BEYOND DETAIL
LIMPIEZA INTEGRAL
RESTAURACIÓN
El Spa de tu vehículo!!!
Camino de la Serna, 33b , Polígono Cantabria
@beyondetail
682 774 472
beyondetail.es
info@beyondetail.es


EL TOPITO de la Suerte
.COM
Admón. Nº16
C.C. Berceo
941 490 480
Administracion de Loterias
www.eltopitodelasuerte.com
Admón. Nº2
Oyon
945 601 379


CAFETERÍA - RESTAURANTE
Guridi
SANTA LUCÍA, 1 - 01320 OION (Álava)
guridioion@gmail.com / Tel.: 945 622 195

# Handik hona hemendik hara, "mugaezin" euskara

Badator ARABA EUSKARAZ ospatzeko data, Arabako ikastola guztien Araba Euskaraz, baina aurten San Bizente Ikastolaren alde. Mugan dagoen ikastola bat, Errioxa eta Nafarroarekin harreman estuan dagoena eta edizio honi ilusio handiz aurre egiten diona, seigarrena izango da 1984, 1997, 2003, 2009 eta 2015ekoen ondoren.

2024ko ARABA EUSKARAZ honetan, berriz ere Gasteizko Olarizuko lorategi botanikora hurbilduko gara arabar guztiekin batera euskararen festa ospatzera.

Gurasoen kooperatiba bat gara, eta duela 50 urtetik hona gure seme-alabak euskalduntzeko lanean aritu gara eremu berezi honetan, Arabako Errioxan. 1976. urtean sortu, ikasle gutxi batzuekin eta proiektu hau martxan jartzeko ilusioz eta gogoz betetako 4 familiarekin. Gaur egun, 300 ikasle eta 200 familia baino gehiagorekin, hezkuntza-komunitate indartsua gara, herri osoari irekia eta beste herri mugakideetatik gure hezkuntza-proiektuaz gozatzera hurbildu nahi dutenei irekia. Horretarako, kooperatiba sentimenduarekin, guztion artean garraio zerbitzu osoa eta goi mailako jantoki zerbitzua eskaintzea posible egiten dugu. Gainera, haurtzaindegi zerbitzua eskaintzen dugu 0 eta 1 urteko ikasleentzat.

Gure hezkuntza-proiektua gure ikasleen ongizate emozionalean oinarritzen da, eta horretarako, gure irakasleak etengabeko prestakuntza eta familiekiko eta ikasleekiko konpromisoa dute. Klaustro egonkorra da, eta gehienak Oionen eta inguruko herrietan bizi dira. Horren ondorioz, kide izatearen sentimendua dugu, gure familiekiko konpromisoa eta ARABA EUSKARAZ bezalako ekitaldiekin lankidetzan eta lantaldean aritzeak bereizten gaitu.

Ikastolek ezinbesteko lekua dute euskararen historian gure lurraldean eta, batez ere, gure eskualdean, Arabako Errioxan. Gu izan ginen lehen urrats garrantzitsu hori egin genuenak, eta, horri esker, gaur egun gure gazte askok euskaraz hitz egiten dute, euskara ulertzen dute eta beren seme-alabek euskaraz ikasteko aukera izango duten etorkizunaren aldeko apustua egiten dute.

Horregatik, ekainaren 16an Gasteizera etortzera animatzen zaituztegu, denok batera euskararen alde. Esku zabalik itxarongo zaituztegu, asko gustatuko zaizkizuen jarduera, kontzertu eta dastatze programa batekin. Familiarekin eta lagunekin gozatzeko egun ezin hobea da. Anima zaitezte!

**Mikel Garrido**
San Bizente Ikastolako Lehendakaria

**Arturo Lopez de la Calle**
San Bizente Ikastolako Zuzendaria



Onkata
Enoturismo

LEOIOAR
SETTER



LOGOART.ES
INNOVACIÓN GRAFICA



DECORACIÓN DE BARRICAS - IMPRESIÓN DIGITAL DE VINILOS - ROTULACIÓN
VEHÍCULOS - ARTÍCULOS PUBLICITARIOS - SOLUCIONES GRÁFICAS
RONCESVALLES 5 - CP: 01320 - OION/OYON - ARABA/ALAVA
610 546 568 comercial@logoart.es www.logoart.es

Irune
Marauri
Fisioterapeuta

ASESORIA
MA
MARTA ÁLVAREZ
MG
MARÍA GOROSTIAGA
CONTABILIDAD · LABORAL · FISCAL
COMUNIDADES · SEGUROS · GESTIONES ADMINISTRATIVAS
945 041 427
628 622 033 / 676 947 628
marta.alvarez.rc@gmail.com
maria.gorostiaga.garcia@gmail.com
C/ ERAS DE ABAJO, 1 · OYÓN · ÁLAVA

FUNDADO EN 2007
CAFETERIA
LARRI
BAR
MOREDA DE ALAVA

CándidoBesa
UPATEGIA

ime
Asesores
Izaskun Martínez Echeverría
C/ Serapio Urra s/n ,31230 VIANA
690150898 - izaskun@imeasesores.es

# San bizente ikastola

1976. urtean sortua, ia mende erdi bat ari da San Bizente ikastola Oionen errotuta lanean, herriko ikastola txikia dugu, baina handia Araba-Errioxa mailan. 1976ko gabonetan herriko eta aberriko kulturaz arduratutako guraso talde bat galdutako sustraien berreskurapenaren beharra ikusirik bildu egin zen eta bertatik gaur egungo ikastola sortu zen.

Oztopoak eta eragozpenak egon bazeuden baina jarduteaten poderioz lortu zen gaur egun erabat finkaturik dagoena.

Ikastolan 0-16 urte bitarteko ikasleak hartzen ditugu,  Haur Hezkuntza 1. eta 2. zikloan, Lehen Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza bukatu arte. 304 ikasle, 32 irakasle, 207 familia eta beste kooperatibista askok osatzen dugu San Bizente Ikastola.

Urteak aurrera joan diren ahala, San Bizente ikastolaren proiektu pedagogikoak ere aurrera egiten jarraitzen du. Gaur egun etengabe gure ikastolak jarraitzen du formakuntza horren puntan, gure ikasleei ahalik eta hezkuntza hezigarriagoa emateko helburuarekin.

Funtsezko bi oinarrik ematen diote San Bizente Ikastolari berezko nortasuna. Alde batetik, Kooperatiba izatea, gurasoek antolatua, beren seme alabei hezkuntza euskaldun eta kalitatezkoa eskaintzeko, kudeaketa demokratiko eta garden baten bitartez. Bestetik, kalitatezko zerbitzua eskaintzea da, Ikastola euskalduna, integratzailea, akonfesionala, hezkidetzagilea. Metodologia parte-hartzailea eta kudeaketa irekia eskaintzen dituena Oiongo eta inguruko familia guztientzat.




TERRYNOX
Taller de soldadura
Pol. Ind. El Carrascal, 4-10
01308 Lantziego • Araba
685 540 604 • 615 360 140
info@terrynox.com
www.terrynox.com
CARPINTERÍA METÁLICA• DECORACIÓN METÁLICA • CALDERARÍA • CERRAJERÍA
MANTENIMIENTO DE BODEGAS • MAQUINARIA AGRÍCOLA • TRABAJOS A MEDIDA


Innovamos para mejorar la eficicencia energética de las instalaciones
INCONEF
INSTALACIÓN Y CONTROL DE ENERGÍA Y FLUIDOS
El Somo, 11. 01322 Moreda de Álava (Álava)
T. 945 622 770 / inconef@inconef.es / www.inconef.es


OYÓN-OIONgo
Udala
Ayuntamiento de
OYÓN-OION


KOKOLO
ADITHES
Acompañando tu creatividad desde 1986
Oros
Líquidos, Crema, Spray
PLATA
SILBER
ORO
GOLD
Manufacturas Kokolo S.L.
Polígono Industrial Roncesvalles, 9-10
01320 Oyón-Oion (Álava-Araba)
945 622 148
admin@kokolo.es













INOXFER OYON, S.L. abarca todos los trabajos realizados en acero inoxidable, corten, hierro, latón y cobre. En particular, aquellos relacionados con la construcción, instalaciones completas en bodega, depuradoras, decoración e industria alimentaria.

Estamos preparados para ofrecerle soluciones interesantes en cerramientos, estructuras, pasarelas, escaleras, mobiliario, instalación, mantenimiento de tuberías y todos aquellos detalles que puedan contribuir a una óptima realización de su proyecto.

INOXFER OYON,S.L.
C/ Santa Lucía 28 01320 OYON (ALAVA)

945 60 15 62 · inoxfer@inoxfer.es · **www.inoxfer.es**

2024ko Araba Euskarazekin, lehenik eta behin, San Bizente Ikastolaren hezkuntza proiektua ezagutzera eman nahi dugu. Horrekin batera Arabar Errioxan Ikastolok euskararen alde egiten dugun lana ikusarazi nahi dugu: Arabar Errioxako neska mutikoak euskalduntzen ditugu, eta, horiekin batera, baita hainbat nafar, errioxar eta urrunagotik etorri berriak ere.




Denbora nahikotxo pasa da, eta ibilbide horretan Ikastolako partaideak (guraso, irakasle, ez dozenteak eta ikasleak) , egoerak eta ingurua aldatu dira. Dagoeneko 48 urte luze pasa dira lehenengo urratsak egin zirenetik eta orduan Arabako Errioxan bizi zen errealitatea ez da gaur egungoa. Oiongo proiektu gisa sortu zena, Araba Errioxako proiektua bilakatu da, D eredua eskaintzen duen Bigarren Hezkuntzako ikastola sortuz.



# Ikastola bat baino, familia bat

Gure ikastolak ez du ikastola bat soilik izan nahi, familia bat izatea dugu helburu. Horregatik, gure ikasleak ikastolan daudenean etxean egongo balira bezala sentitzea nahi dugu. Euskararekin batera  hau da gure proiektuaren ardatz garrantzitsuenetarikoa.

## 0-3 Etapa: Haurtzaindegi bat baino gehiago

Gure txikien zaintza eta garapen integralerako, maitasunez eta dedikazioz diseinatutako gunea dugu. Etxeko giro bero eta abegikorra sortzen ahalegintzen gara.

Gure ikuspegiaren alderdi garrantzitsuenetako bat hurbiltasuna eta familiartasuna da. Haurrekin eta haien familiekin harreman sendoak eta konfidantzazkoak izatearen garrantzian sinesten dugu. Haur bakoitza banaka ezagutzeko konpromisoa hartzen dugu, haur horien beharrak, interesak eta garapen-erritmo desberdinak dituztela ulertuz. Gurasoek ere seme-alabekin haurtzaindegian denbora pasatzeko aukera eskaintzen dugu, lasai, eroso eta seguru sentitu arte.
Aniztasuna eta inklusioa baloratzen ditugu.

Horregatik, adin desberdinetako haurren arteko interakzioa sustatzen dugu. Gure ustez, elkarrekintza horrek haurren ikaskuntza-esperientzia aberasten du, laguntasuna, enpatia eta gizarte-trebetasunen garapena sustatuz.

Haurren erritmo naturalak biziki errespetatzen ditugu. Gure ustez, haur bakoitzak bere barne-erlojua du, eta ikaskuntza eta miaketa errespetuz  gertatu behar dira. Beraz, ingurune malgu eta moldagarri bat eskaintzen dugu, haurrei mundua bere erritmoan esploratu eta ezagutzeko aukera ematen diena.







# 3-6 Etapa:

Haur Hezkuntza eskolaratzearen hasiera markatzen duen garaia da, horregatik gure lan-proposamena erakargarria eta motibagarria da batik bat. Ekintza ezberdinen bitartez gure txikien jakin-mina eta interesa bultzatu nahi dugu. Gure baliabideak horretarako HIZAN proiektuaren eta Konfidantzaren Pedagogiaren eskutik datoz.

Konfiantzaren pedagogian, irakasleok bideratzaileen eta gidarien rolak hartzen ditugu, ezagutza transmititzaile hutsak izan beharrean. Ikasleekin harreman sendoak eraikitzea helburu dugularik, elkarrenganako errespetua eta babesa sustatuz. Honetarako familien gertutasuna eta hartu-emana ezinbestekoak direlarik.

Rafael Cristobalen eskutik eta hiZAN mintegietatik beharrezko prestakuntza jaso ondoren, 2017an gure proiektu propioa eraikitzen hasi ginen.

Gure hezkuntza proiektua tarteka adin ezberdinetako haurrak nahastearen aldekoa da. Haur Hezkuntzan haurrek beraien irudia eraikitzen dute eta autonomia eta ekimen pertsonala behar bezala garatzeko ere ekintza ezberdinak burutzen dituzte, beti ere euren emozioak kontutan hartzen ditugularik. Horrekin guztiarekin, konpetentzietan oinarritutako behar bezalako hezkuntza garatzeko aukera eman nahi zaie.





CARNICERÍA
La Tobiana

C/ General Espartero, 3 bajo 1 - 26003 LOGROÑO (La Rioja)
T. 941 245 156 - M. 635 208 388 - carnicerialatobiana@gmail.com



# LH Etapa:

Orain dela urte batzuk, gure ikastolak bere oinarria finkatu zuen. Egunero berrikuntzak azaltzera etortzen dira guregana, gehienak interesgarriak eta lan egiteko modua eraldatzen dutenak. Zein aukeratu, zergatik, zertarako, nola egin,,... galdera ugari sortzen zaizkigu eta horregatik ikastolan oinarri sendoa ezartzea erabaki genuen.

Beraz, ikastolan gure gabezietatik hasita, gure ikasleen irteera profila finkatu genuen. Zein nolako ikasleak hezi nahi ditugun adostu genuenean, helburu hori nola lortu errezagoa egin zitzaigun, helmuga markatuta izanda, bidea eraikitzen ari gara. Horretarako, proiektu pedagogiko iraunkorra ezarri dugu.

Gaur egungo ikastolaren ildo pedagogikoa esparru desberdinetan banatzen dugu. Etapa bakoitzaren berezitasunak kontuan hartuta, ikastola osoa biltzen duten ildoak ezarri dira. Jarraian, guztien artean, bereizten gaituzten hiru aipatuko ditugu.

Lehenengoa, segurtasun emozionala da, honekin irakaslearen eta ikasleen artean hurbileko eta konfiantzazko harremanak ezartzea eta pertsonen arteko komunikazio-giro eraginkorra sortzea nahi dugu. Gure irteera profilean markatu dugun moduan, pertsona orekatuak, osasuntsuak eta emozionalak hezi nahi ditugu. Egoera ez-





berdinen aurrean, hainbat eremutan, gustura sentitzeko eta modu positiboan bizitzeko, autoestima garatua dutenak. Horren adibide bat, ikastolan, eguneko lehenengo saioaren hasieran, gure ikasleei denbora bat eskaintzen zaie, adinaren arabera aldatzen dena, egunaren egokitzapena egiteko. Hau da, tarte honetan, ikasleak lagunekin jolasteko, aurreko egunean gertatutakoa kontatzeko, irakurtzeko,... haiek aukeratutako ekintzan parte hartzeko tartea dute. Momentu horretan irakaslearen lana behaketa egitea da, ikasleari zer moduz dagoen galdetzeko unea, kezkak, etxeko giroa, lagunekiko harremana, haien inguruko bizitzaren gaien inguruan galdetzeko momentua. Horrela, ikasle-irakasle arteko harremana sustatzen dugu.

Gure ikastolaren bigarren ildo bat, ikaskuntza kooperatiboa sustatzea da eta irteera profilean adierazita dugunez, ikaskuntza kooperatiboan hezi nahi ditugu gure ikasleak. Proiektuen bitartez, gaitasun sozialak garatuz, lantalde-dinamikak aurrera eraman. Bizitzaren arlo desberdinetan (soziala eta profesionala), konpetenteak izateko. Txikietatik elkarketatik abiatuta, adina gora egiten duen heinean, gure ikasleak taldeetan kokatuta daude geletan. Ikasleak haien gelen barruan, erreferentziazko taldeetan banatuta daude




VIÑA BUJANDA





FLOYMA

Fontanería
Calefacción
Aire Acondicionado
Gas
Cambios de Caldera







C/ Estíbaliz, 5 bajo - C/ Laureano Irribarria, 1 bajo - 01320 OYÓN (Alava)
M. 657 79 06 50 - 636 50 31 08 E-mail: floymaoyon@gmail.com

# DBH Etapa: Norbanako tutoretza

Koldok aurreko asteburuan mina hartu zuen belaunean partidu batean eta 3 hilabete lesionaturik egongo da. Selekzioarekin jokatzeko deitu bazuten ere, ezin izango du.

Aneren gurasoak banandu dira eta egia esateko nahiko gogorra egiten ari zaio Aneri. Aste batean etxe batean dago eta hurrengoan bestean. Leku batetik bestera mjoate honek ez dio laguntzen eta galduta sentitzen da.

Alaitz oso pozik dago. Betidanik izan duen ametsa gauzatzen ari dela dirudi. Kontserbatorioan egindako piano proba gainditu du eta datorren kurtsoan bere ikasketekin jarraitzeko aukera izango du maila ofizialean.

Koldo, Ane eta Alaitzek zerbait daukate komunean munduan dauden nerebe guztiekin. Nerabezaroan gertatzen zaienaren intentsitatea. Horrexegatik, ikastolan norbanako tutoretzak egitea erabaki genuen, espazio bat emateko bizipen guzti hauei, ikasleak entzuteko aukera izateko eta bide batez, beraien ibilbidean lagundu ahal izateko.

Eta nola egiten dugu? Batetik irakasle guzti-guztiak tutoreak gara, adin ezberdinetako taldetxo bat daukagu, eta beraien jarraipenaz arduratzen gara. Denok tutorea garenez ikaslegoa askoz banatuagoa dago eta kopurua txikiagoa da. Ordu libreren bat daukagunean gelatik ateratzen ditugu (gutxienez hilean behin) eta beraiekin hitzegiteko tarte bat daukagu. Batzutan animatu behar ditugu, beste batzutan aldiz lagundu eskemak egiten.... mila aukera daude, baina beti dakite nahi izanez gero, gertuko pertsona bat daukatela laguntza eskatzeko.

4 urte daramagu dinamika honetan eta bai gu bai beraiek oso pozik gaude.





# Arabako ikastoletako ikasleen II. Topaketa

Iaz jarri zen martxan Arabako zortzi ikastolen arteko ikasleen topaketa. Pasa den urtean Aguraingo Lautada Ikastolak izan zuen antolaketa honen ardura nagusia. Aurtengoan berriz, Oiongo San Bizente Ikastolak hartu zuen lekukoa eta martxoak 14an ospatu zen EKI metodologiaren barruan planteatzen zen topaketa zoragarri hau.

**"IKUSTEKO BEHATU; BEHATZEKO SENTITU"** deitzen den unitatearen bitartez, gure ikasleek, ikastolak dauden herri desberdinak ezagutzea da helburuetako bat. Bestea noski, elkar ezagutza eta giro euskaldun batean gozatzea.

Horretarako, LH 6. mailako ikasleek, Oion herria ezagutarazteko gida turistiko bat prestatu zuten. Zortzi ikastola garenez egitasmo honetan parte hartzen dugunak, Oiongo zortzi txoko aurkeztu zizkiguten gure gidariek: "Virgen de las viñas" baseliza, Oiongo parkea, Ikastola, Jauregiak, Udaletxea, "La Guiraldilla" Eliza, Ullone iturria eta IKA euskaltegia, eta nola ez, Arabar Errioxan egonda, COMY ardo koperatiba.



Eguna bikain hasi genuen. Herriko frontoian bildu bai ginen ia 270 ikasle inguru. Harrera jolas batzuk prestatu zituzten, esan bezala, LH 6. mailako ikasleek. Hamaiketakoa egin ostean hasi ginen herria ezagutzen.






Zortzi taldeetan banaturik, eta talde bakoitza ikastola desberdineko ikasleez osatuta, hasi ziren txoko desberdinak ezagutzen. Gainera, herriko txoko bakoitzean jolas eta ekintza desberdinak egiteko aukera ere izan zuten, bertako informazioa jaso ostean.

Bisita bukatutakoan, elkarrekin bazkaldu genuen denak. Eta bakoitza bere ikastolara bueltatu aurretik ikastola guztiok prestatutako koreografia bat dantzatu genuen.

Ezin ukatu, egun ahaztezina pasa genuela. Eta nola ez, mila esker lehenik eta behin San Bizenteko LH 6. mailako ikasle guztiei egindako lanagatik, eta bestetik, gure herria ezagutzeko asmoz, Oionera hurbildu zineten ikasle zein irakasle guztioi.

Datorren urtera arte.



# Guztion lana: auzolana

2024ko Araba Euskaraz, Ekainaren 16an, azken bi urteetan bezala, Olarizun ospatuko dugu. Arabako Ikastolen aldeko jaia da eta egun osoko egitarau kulturalaz beteta izango dugu. Ikastola guztiok batera, guztiok batuta. Arabako zortzi ikastolok elkarrekin izan gara lanean aurten ere Araba Euskaraz antolatzen. Azken bi ekitaldietan martxan jarri dugun ereduari jarraipena emango diogu, auzolana eta elkarlana ardatz hartuta, eskuz esku, buruz buru, gure jakintza elkarbanatuz, gure harremana aberastuz.

Ikastola guztion artean egin dugun auzolan honi esker, ikastolen proiektuak ezagutarazi eta bultzatu nahi ditugu. Baina, era berean, euskarari eta euskal kulturari agertoki handi bat eskaini nahi diegu. Ikastolek bezalaxe, euskarak behar duelako Araba Euskarazen bozgorailua; euskal kulturak behar duelako Araba Euskarazen agertokia; eta arabarrok ere behar dugulako Araba Euskarazen topagunea.

Guztion lana, guztion konpromisoa, ikastolen mugimenduarekiko, Arabarekiko, euskararekiko eta euskal kulturarekiko. Guztion lana eta esfortzua, ikastolen proiektuak aurrera ateratzeko. Urte honetako Araba Euskarazen antolaketarekin Oiongo San Bizente ikastola lagundu nahi dugu. San Bizente ikastolaren hezkuntza proiektua ezagutzera ematearekin batera, Oionen eta Arabar Errioxan euskararen erabilpena aldarrikatzeko eta bultzatzeko, eta erabilpen eremuak zabaltzeko baliatuko dugu gure jaia.






# Leloa

Mugaezin; horrela, mugagabean, dugu 2024ko Araba Euskarazen leloa. Mugarik gabe eta mugaezin irudikatzen dugulako gure hizkuntza. Mugarik gabe, euskaraz hezi eta hazi nahi duten guztientzat.

Hegomendebaldeko bazterretik ari gara, bazter-herritik, euskarazko hatsa igorriz erdigunera. Baina erdigunean ere bagaude, eta indar zentripetua eragiten dugu, nafarrak eta errioxarrak, baita etorri berriak ere erakarriz gurera.

Gure gogoa, borondatea eta grina ere mugaezinak dira. Duela berrogeita hamar urte, guraso, irakasle eta ikasle aitzindariek abiatutako ikastola mugimendua guztiz errotuta dago Arabar Errioxan. Urteotan guztiotan lortu dugu eskualde honetan euskaldun eta ia euskaldunak %4 izatetik, %40tik gora izatea.

Eta gure gogo, borondate eta grina mugaezinarekin lortuko dugu Arabar Errioxa euskalduna, Euskal Herri euskaldunean.

Su planetak eta Gar izarrak erakusten digute bidea, Lurretik 26 argi-urtera. Euskara unibertsala baita!



euskaraz '24

gaezin

# Logoa

Logotipoa infinituaren ideiaan inspiratuta dago eta Araba lurraldeko zortzi ikastolen arteko lankidetza nabarmena sinbolizatzen du.

Diseinu honen funtsezko elementuak hauek dira:

**Forma nagusia:** logotipoak betikotasuna eta etengabeko mugimendua adierazten duen forma espirala aurkezten du, etengabeko bidaiaren eta denboraren jarioaren ideia gogora ekarriz.

**Ekilore-petaloak:** espirala harmoniatsu konbinatzen da esoirala inguratzen duten zortzi petaloekin. Petalo horietako bakoitzak Arabako zortzi ikastoletako bat adierazten du. Petaloak hazkundearen, aniztasunaren eta lankidetzaren sinbolo dira, elkarrekin osotasun harmoniatsua eta bateratua osatzen baitute.

**Kolore horia:** logotipoan nagusi den kolorea horia da; eguzki-lorearen ezaugarria dena. Kolore honek argia, energia eta bizitasuna sinbolizatzen ditu. Gainera, ekilorea Arabako paisaiaren landare enblematiko bat da, eta komunitatearekin eta lurraldearekin lotura berezia ezartzen du.

**Mezua:** logotipoak hezkuntzaren testuinguruan lankidetza eta hazkunde infinituaren mezua transmititzen du. Espiralak etengabeko hezkuntza-bidaia eta ezagutzaren etengabeko bilaketa iradokitzen du, ekilore petaloek berriz, zortzi ikastolen elkartea islatzen dute ahalegin bateratuan. Kolore horiak baikortasun eta argi sentipena gehitzen dio mezu honi.

Laburbilduz, logotipoa Arabako zortzi ikastolen arteko elkarlanaren irudikapen bisual indartsua da, hazkuntzaren ideia, etengabeko mugimendua eta Arabako paisaiaren edertasuna gogora ekarriz ekilorearen sinboloaren bitartez.

# Abestia

**Araba Euskarazen** 2024ko edizioak badu dagoeneko kanta. Aurtengo leloaren izen bera dauka: **'Mugaezin'**. **Ibai Landa** dugu abestiari hitzak jarri dizkiona. Ikastolako ikasle ohia, eta **Oiongo San Bizente ikastolako** irakaslea dugu Ibai.

Abestiarekin, eta abestia oinarri hartuta osatu dugun dantzarekin, euskarak ez duela mugarik adierazi nahi izan dugu. Harresiak hautsi genizkiola, hemen euskararen periferian; eta periferiatik erdigunera ere eramaten dugula euskara. Letrek azaltzen dute ekitaldi honetarako Araba Euskarazek hedatu nahi duen mezua. Batetik aniztasuna islatzen du, horrelakoa baita Oiongo San Bizente Ikastola: jatorri ezberdineko kidez osaturiko komunitate bat, herri eta herrialde ezberdinetik iritsi eta guztiak ikastolan elkartzen diren kidez osaturiko komunitatea.

Bestetik, Arabako ikastolok bat egin dugula ere esaten du abestiak. Guztiok elkarrekin hirugarren urtez jarraian antolatzen dugun Araba Euskaraz baitugu aurtengoa.

**Eh, Mertxe!** rock taldeak jarri dio doinua abestiari. Ibai Landa bera da taldeko kideetako bat. Besteak dira: **Adrian Cabañas, Iosu Martinez eta Ivan Aranbarri.** Guztiak ikastoletako kide ohiak. Rock-and-roll banda zitala da **Eh, Mertxe!**; kementsua, gitarra zorrotzekin eta doinu melodiko eta infekziosoekin, bulkada basatien erritmora dantza eta oihu egitera bultzatzen duena. Agertoki gainean indarra eta sinpatia transmititzen dituen taldea da, eta 2015etik dabil oholtza gainean.

Rock-and-roll musika energiko eta dantzagarria proposatu digute **'Mugaezin'** abestiarekin. Osatu dugun bideoklipean San Bizente ikastolako komunitate guztia jarri dute dantzan. Izan ere, auzolanean ekoitzi dute bideoklipa: ikasleek, irakasleek, gurasoek, San Bizente ikastolaren sortzaile eta lagunek parte hartu dute. **Lander Etxedonak** zuzendu du bideokliparen errealizazioa. Lander ere ikastolako ikasle ohia da.

## EH, MERTXE! - MUGAEZIN (AE24)

Arnasgunea Arabako Errioxan
Gure hizkuntzaren hesiak bota zituena
Ebro ibaiaren ertzean bere atea
45 urtez irekia

Zortzien lankidetza beharrezko energia
ikastolen magia gure mingainak dantzan jartzea

MUGAEZIN ARABAN EUSKARA
MUGIMENDU ETENGABEAN
MAHASTI ARTEAN JAIOTAKO EKILOREAK
OIONEN DU BERE ETXEA

Mugagabea herriko ikastola
Izaeraz hautsitzailea izan dena
Bere ikasleak izandako ume bezala
Euskeraz abestearen motiboa

Eskualdeko birika bizia
Nortasunean harrotasunez jantzia

MUGAEZIN ARABAN EUSKARA
MUGIMENDU ETENGABEAN
MAHASTI ARTEAN JAIOTAKO EKILOREAK
OIONEN DU BERE ETXEA

**Letra:** Ibai Landa
**Musika eta ahotsa (Eh, Mertxe!):** Ibai Landa (ahotsa eta kitarra), Adrian Cabañas (kitarra), Iosu Martinez (Bateria), Ivan Arambarri (Baxua).

**Grabaketa, nahasketa eta masterizazioa:** Elkar estudioa

**Teknikaria:** Victor Sánchez

# Ibairen elkarrizketa



**1. Ibai, saltsa guztietan sartuta zaude, abesten duzu, irakasten duzu, ingelesez hitz egiten duzu... eta beti umore onez. Nola egiten duzu hainbeste gauzak egiteko? Estresa sentitzen duzu? Zein roletan sentitzen zara erosoago musikari edo irakasle?**

Gauza asko egiten ditut baina haietakoren bat ondo egiten al dut? Kar, kar! Estresa egoera batzuetan beharrezkoa da gorputzeko energia martxan jartzeko baina askotan blokeoak ere sortzen ditu. Eginbeharren eta presioaren artean ekilibrioa bilatzea da garrantzitsua. Rolen inguruan esan behar dut irakasle izateak asko laguntzen didala musikari izateko, asteburuetan kontzertuak egin ahal izateko. Eta bestetik, esan behar dut musikari izateak ere irakaskuntza munduan beste bide batzuk bilatzeko aukera ematen didala. Biekin oso pozik nago.

**2.- Zergatik deitzen da EH mertxe zure musika taldea? Eta nola sortu zen? Esango diguzu?**

Euskal hitz batetik dator izena, "hementxe" hitzetik. Logroñon Mertxe izeneko emakume baten inguruan ari ginela pentsatzen zuten eta, emakume hori ezagutu bezain pronto, jakin genuen gure izena zein izango zen.

**3. Badakigu musikatresna desberdinak jotzen dituzula. Musika irakaslea izan zarela baita. Galdera bat egin nahi dizugu. Zergatik abeslaria?**

Arabako Errioxan ez da erraza izaten gure gustu musikalak dituen jendea aurkitzea. Musikazale amorratuak gara, kontzertuetara joaten diren horietakoak, binilo diskak erosten dituzten horietakoak, eta bizitzeko modu hau betetzen zuen inor ez genuen aurkitu.

**4. Araba Euskaraz abestia egiteko aukeratua izan zen zuen taldea. Esango diguzu nola sentitu zinen esan zizutenean?. Ikastola honetan ikasle, irakasle izan zarelako zuretzat berezia izan da ezta?**

Ikasle ohi moduan esan dezaket abesti hauek ilusio handiarekin bizitzen direla eta umeek jakin zutenean abestia guk egin behar genuela eta haien aurpegiak ikusterakoan izugarri poztu nintzen. Bestalde, esan behar dut presioa ere nabaritu nuela. Azken finean betirako geratzen da eta ahalik eta ondoen egiten saiatu gara.




**5. Zaila izan da Araba Euskaraz-eko abestia konposatzea? Nolakoa izan da prozesua? Denon artean egiten dituzue abestiak edo nola?**

Abesti bakoitzak bere prozesua du. Kasu honetan taldekoen artean musika sortu genuen, lagun baten laguntzaz lokalean grabatu genuen eta azkenik letra sartu nuen grabazio horretan. Zirriborro hau izan da gure gida Elkar Estudioko grabazioan. Behin estudioan zaudela, teknikariari kasu egin eta ahalik eta gehien entsaiatuta joan behar da musikaria, dena primeran atera ahal izateko.

**6. ZeintzuK izan dira ideiak abesti hau konposatzeko?, Oion berezia da Euskal Herrian? Zeri buruz hitz egiten da abestian?**

Askotan "muga" hitza erabiltzen da Oionen inguruan hitz egiten dugunean. Kasu honetan, esango nuke "atea" hitzak hobeto definitzen duela herria. Arabako, Nafarroako eta Errioxako jendea etortzen zaigu egunero ikastolara, mugak hautsiz gure euskara polittak egiten duen bezala. Abestiak kontzeptu honen inguruan hitz egiten du mugimendua, energia eta eskualdea abiapuntuak izanda.

**7. Bideo klipan ere arduraduna izan zara eta parte hartu duzu, bestetik, ikasleak, gurasoak, irakasleak.. eta ikastolako komunitate osoak parte hartu du. Pozik al zaude emaitzarekin?**

Auzolanean egin da bideoklipa, komunitatea inplikatu da eta izugarri aberasgarria izan da. Lander Etxedona mago hutsa dela esan beharrik ez dago, bere begiradaren eta lanaren ondorio zuzena da emaitza bikain hau.

**8. Urduritasuna igerri zenuen mikrofono aurrean jarri zinenean? Zer suposatu zuen zuretzako eta zure talderako?**

Urduritasuna gogoarekin trukatzeko prozesua aspaldi egin genuen. Talde honen eraketa musika egitearen beharraren errotik jaio zen eta oholtza zapaltzea izan da urte hauetako gasolina.

**9. Gasteizen egin zenuten abestiaren aurkezpena. Zer nolako feedback-a jaso zenuen? Jendeak zer komentatzen dizu?**

Jendea pozik geratu zela esango nuke. Abestiarekin dantzan, txaloka eta irribarretsu ikusi genituen eta hori beti da seinale ona. Oraindik aukera egongo da gehiagotan abestia zuzenean entzuteko beraz ea zer moduz jasotzen duen jendeak.

**10. Beno, bukatzeko. Plazer handia izan da zuri galdera hauek egitea, badakigu proiektu berrietan sartuta zaudela. Komentatuko diguzu? eta, San Prudentzioetan egin duzuen bira, nola joan da?**

Milesker zuei elkarrizketa hau egiteagatik. Bira oso intentsoa izan da eta noski, momentuz egin dugun gauzarik aberasgarrienetakoa. Indar berrituta bukatu dugu, gauza gehiago egiteko eta gure rock 'n' roll zaratatsu honekin jarraitzeko gogoz.

# Urte osoan mugaezin

Araba Euskaraz eguna ekainaren 16an ospatuko dugun arren, Eskualde bakoitzean urtean zehar antolatu diren ekimen desberdinen bitartez, gure lurraldeko bazter guztietara eraman dugu. Lehenengoa Urriaren 27an Oionen izan zen, Araba Euskarazen **aurkezpen jaia** izan genuen, Dj Kaptusek aurkezpena girotu zuen eta lehenego arropa salmenta egin zen. Abenduan Gazte Talent lehiaketaren finalaz gozatu genuen Gasteizen.

Gabonak pasata **Go!azen** kontzertua izan genuen Gasteizen ere. Otsailan **Euskal Pilota Topaketa** izan genuen Oionen, bertan umeek pilotaren mundua gertuagotik ezagutzeko aukera izan zuten.

Martxoan **Porrotx eta Marimotots** izan genituen Oiongo zineman. Martxoan ere oraingoan Beskoitzen, Ikastolak Herriari; Non eta Mugan ospatu zen, mugan gauden ikastolei omenaldi txiki bat egin zitzaigun.

Urtero bezala, Araba Euskarazen **abestia sortu zen**, letra ikastolako irakasle batek jarri dio, Ibai Landak eta musikaren egilea Eh, Mertxe! taldea izan da. Martxoaren 3an Oionen, Lander Etxedonaren gidaritzapean, bideoklipa grabatu zen eta komunitate osoa parte hartzera gonbidatua izan zen. Auzolan giroan pasa genuen asteburu ederra. Apirilaren 10an **kantaren aurkezpena** EHU Gasteizen izan genuen, prentsa aurrekoa egon zen, San Bizente Ikastolako zuzendaria eta Araba Ikastoletako beste zuzendariak ere izan genituen bertan.

Apirilean ere **Araba Euskaraz Master Series, Jai Alai league**, antolatu zen Gasteizen.

Maiatzaren 18an **Mugaezin jaialdia** ospatu zen Oionen, oso egun polita izan zen, Eh, Mertxe taldea izan genuen, Akerbeltz, Pontx Pailazoa, dantza emanaldia, mantagorri tailerrak trikipoteoa eta bazkaria Maiatzean era **Go!azen** kontzertua izan genuen Amurrion.

Esan bezala, Araba Euskaraz eguna, urte osoari bukaera emango dion jai eguna izango da. Beraz, ekainak 16an Olarizun aukera izango dugu, elkartasunean eta euskara ardatz dugula, guztion artean egun zoragarri batez disfrutatzeko.









araba euskaraz '24

# mugaezin

**Hasierako ekitaldia**
**10:00** Auditorio begetalean

**Araba euskaraz artisau azoka**
Egun osoan zehar sarrera nagusian

**Arabako Herriarteko txapelketaren Euskal Pilotako finalak**
**10:30** Adurtzako pilotalekuan

euskal pilota elkartea ARABA federación de pelota vasca

**Kalejirak**
**11:00** Gaiteroak
**12:00** Castellers d´Alt Maresme
**12:30** Gasteiz Kantuz
**13:00** Arai Erraldoien Konpartsa

ERRONKA

**11:00-14:00**

**LH**
Mendia gunean

**DBH**
Gune guztietan



ko
ea

SARRERA

loRategi botanikoa

# 1. lautada gunea

11:00 **ARTE ESZENIKOAK**
Armentia ikastola
12:30 **GO!AZEN KARAOKEA**
14:00 **MUGAEZIN TXOUA!**
Arabako Ikastoletako ikasleak
15:30 **DANTZA PLAZA**
17:00 **ZUNBA**

**Tailerrak eta jolasak:**
11:00-14:00 **BERRIAREN TXOKOA**
11:00-16:00 **ARGITXOREN TXOKOA**

**Egun osoan zehar:**
**EROSKI ELIKADURA TAILERRA**
**MAKUSI GUNEA**

ARGITXOREN TXOKOA

# 2. mendia gunea

11:00 **DANTZA MUGAEZIN!**
Euskal dantzen topaketa
12:30 **BERTSOTAN!** Arabako Bertsozale Elkartea
14:00 **MIROTZ** (Gazte Talent)
15:30 **EH, MERTXE!**
17:00 **AKERBELTZ**

**Tailerrak eta jolasak:**
11:00 - 14:00 **HAURREN BASOA**
11:00- 15:00 **ABESTU, DANTZATU ETA SORTU KAIKUREKIN**

# 3. erreka gunea

11:30 **MARIA ARANDIA**
"Magia eta miraiak familian"
(Berriaren eskutik)
13:00 **IBIL BEDI**
14:30 **JANUS LESTER**
16:00 **BURUTIK**
17:30 **DJ MALANDRO**

**Tailerrak eta jolasak:**
11:00 - 14:00 **HAZTEN ETA JOLASTEN**
Araba Euskaraz murala eta pultserak

**Egun osoan zehar:**
**EUSKALTEL KUKAÑA BIZIKLETAZ**
**PUZGARRIAK**

a | Tonbola | Denda | Puntu morea | Taloak | Paella | Eusko label gunea | Janariak | Edariak | Kafea | Izozkiak | Komunak

# Mundutik San Bizente ikastolara

## Roberto Garcia

Nosotros conocimos la ikastola casi por casualidad, un día estábamos hablando de que tendríamos que ir mirando coles para Álex y quisimos informarnos un poco de cómo iba la Ikas porque no sabíamos nada. Llamamos y el director nos dijo que al día siguiente se acababa el plazo así que esa misma tarde fuimos a verla y al día siguiente hicimos la preinscripción.

Guk ia kasualitatez ezagutu genuen ikastola. Egun batean Alexentzak ikastetxeak begira hasi beharko ginela komentatu genuen, eta ikastolaren funtzionamendua nolakoa zen jakin nahi izan genuen. Zuzendariak komentatu zigun hurrengo egunean bukatzen zela izena emateko eguna. Arratsalde hartan bertan joan ginen ikustera, eta hurrengo egunean aurreinskripzioa egin genuen.

Pues que es una cooperativa  laica y apolítica.  Que hay continuidad con los docentes, y que, dentro del proyecto educativo, se mezclaban a veces niños de diferentes edades para llevar a cabo diferentes actividades. Por otro lado, nos gustaría destacar los servicios. La parada del autobús nos cuadraba muy bien, y la comida del comedor se cocinaba in-situ y  el menú es kilómetro cero y muy equilibrado... Y por último. Nos gusta que Álex vaya a conocer un idioma por el que, a pesar de no hablarlo, sentimos mucho cariño... Todas estas cosas son las que nos gustan de la Ikas y por todas ellas es por lo que nos animamos a llevar a Álex.



Kooperatiba bat dela, laikoa eta apolitikoa. Irakaslegoan jarraitutasuna degoela,. Hainbat ekintzatan, adin desberdinetako haurrak nahasten direla. Eta ikastolak eskaintzen dizkigun zerbitzuak ere azpimarratu nahiko genituzke.Autobusa oso ondo egokitzen zaigu. Jantokiko janaria bertan prestatzen da eta menua zero kilometrokoa eta oso orekatua da... Eta, jakina. Alexek hizkuntza berri bat  ezagutzeko aukera. Guk hitz egiten ez dugun arren, asko maitatzen dugun hizkuntza baita. Gauza horiek guztiak dira Ikastolatik gustatzen zaizkigunak, eta horregatik erabaki genuen Alex bertan matrikulatzea.

# Carlos Catalan eta Adriana Landaluze

El euskera es para mi, además de un tesoro cultural, una de nuestras principales señas de identidad como pueblo. Considero una obligación contribuir a que no se pierda, que no se convierta en una reliquia arqueológica. Por ello he procurado que mis hijos sean educados en euskera y que ellos lo puedan transmitir a sus hijos.

El proyecto pedagógico de las ikastolas me parece el más recomendable desde muchos puntos de vista: una enseñanza moderna, feminista, laica y que transmita unos valores que comparto.

Valoro la atención personalizada y el seguimiento que hace a los alumnos. Me gusta que se haya recuperado la vieja tradición del auzolan y que la asamblea de padres esté en condiciones de influir en las grandes decisiones del centro. Valoro ese estilo cooperativista.

Euskara, altxor kulturala izateaz gain, herri gisa dugun nortasunaren ezaugarri nagusietako bat da niretzat. Ez galtzeko eta erlikia arkeologiko ez bihurtzeko betebeharra dela uste dut. Horregatik, ahaleginak egin ditut nire seme-alabak euskaraz hezi daitezen eta seme-alabei transmititu ahal izan diezatela.

Ikastolen proiektu pedagogikoa ikuspuntu askotatik gomendagarriena iruditzen zait; irakaskuntza modernoa, feminista, laikoa eta partekatzen ditudan balio batzuk transmititzen dituena.

San Bizente Ikastolan ikasleei ematen zaien arreta pertsonalizatua eta jarraipena baloratzen ditut. Auzolanaren tradizio zaharra berreskuratzea eta gurasoen batzarra ikastetxearen erabaki handietan eragiteko ahalmena gustatzen zait. Estilo kooperatibista hori da gehien azpimarratu nahiko nukeena.



Me pareció la mejor opción de mi entorno, un centro laico, mixto, inclusivo y plurilingüe. También me informé del sistema educativo, basado en competencias y trabajo en grupo, el cual me pareció mucho más moderno y operativo que el común del estado. Me gusta que se trate de un proyecto cooperativo de pequeño tamaño donde todos nos conocemos, nuestros hijos forman parte de esa ampliación familiar.

Los profesores son educadores que acompañan a padres e hijos en la difícil tarea de construir mentes sanas y felices capaces de integrarse en la sociedad actual e incluso cambiarla.

Nire inguruko aukerarik onena iruditu zitzaidan, ikastetxe laiko, misto, inklusibo eta eleanitza. Hezkuntza-sistemari buruzko informazioa ere jaso nuen, gaitasunetan eta talde-lanean oinarritua. Sistema hori estatuko sistema komuna baino askoz modernoagoa eta operatiboagoa iruditu zitzaidan. Tamaina txikiko proiektu kooperatiboa izatea gustatzen zait. Denok ezagutzen dugu elkar, gure seme-alabak familia-zabalkunde horren parte dira.

Irakasleak hezitzaileak dira, eta gurasoei eta seme-alabei laguntzen diete egungo gizartean integratzeko eta gizartea aldatzeko gai diren buru osasuntsu eta zoriontsuak eraikitzeko lan zailean.



## Diego Andollo

Oiongoa naiz, eta ikastolaren hasierak oso gertutik bizitzeko zortea izan nuen. Oionek hezkuntza-kalitate bikaineko Ikastola izan dezan egin behar izan den ahalegin guztiaz jabetzen naiz. Argi genuen aukera hori aprobetxatu behar genuela.

Ikastolak eskaintzen dizun hurbiltasuna eta irakasleen egonkortasuna. Irakasle batzuk nire irakasle izan ziren eta ikaskide izan ziren batzuk gaur egun nire seme-alaben irakasle dira. Oiongo ikastolak gertuko langileak kontratatzearen aldeko apustua egin du, batez ere Ikastolako ikasle ohiak. Ikastolak, hazi egin den arren, hasieran zuen familia giro horri eusteko esfortzua egiten du.



## Ainara Valdivielso

Nik San Bizente Ikastolan ikasi nuen. HH3-n hasi nintzen DBH bukatu arte.

Ditudan oroitzapenak lagunekin, irakasleekin, egiten genituen ekintzekin... oso onak dira. Izan nituen irakasleak oso onak izan dira beti, nire ikasketak bukatu ostean haiekin neukan harremana ez zen aldatu.

Orain ni ikastolako irakaslea naiz, eta egunero egiten den lana ikusten dut. Nire alabekin ez nuen dudarik izan, argi neukan San Bizente Ikastolan ikasiko zutela. Nik han igarotako uneak eta geratu zaizkidan oroitzapenak, nire alabentzat ere nahi ditudalako.

Batez ere, ikasleei eskaintzen zaien hezkuntza pertsonalizatua eta irakasleek familiekiko duten hurbiltasuna.

Gainera, ikasturtean zehar egiten diren jarduerak, txangoak, egun bereziak... haurrek beti maitasun handiz gogoratzen dituzten esperientziak dira.

Lantzen diren metodologiak ezagutzen ditudanez ere, oso aukera ona iruditzen zait gure seme-alaben garapenean eta hezkuntzan lan egiten joateko.

Horregatik guztiagatik, San Bizente Ikastola aukerarik onena iruditzen zait gure seme-alabak etorkizunerako hezkuntzan trebatzeko.





## Sonia Lizuain

Elegí la ikastola porque me pareció la mejor opción para mi hijo de 12 años. Prioricé que fuera un centro pequeño y familiar, donde las necesidades de mi hijo estuvieran cubiertas. Por ello elegí la Ikastola San Bizente. Y que os voy a decir que no sepáis. Pues que estoy encantada, que es como una segunda familia para mí y para Urko y que siempre llevaré a esta ikastola en mi corazón.

Ikastola aukeratu nuen 12 urteko semearentzat aukerarik onena iruditu zitzaidalako. Zentro txiki eta familiarra izatea lehenetsi nuen, nire semearen beharrak beteta egon zitezen. Horregatik aukeratu nuen San Bizente ikastola. Eta ezer esango dizuet? Ba pozik nagoela, bigarren familia bat bezalakoa dela niretzat eta Urkorentzat eta beti eramango dudala ikastola hau nire bihotzean.

Lo que más valoro de la ikastola, además de su proyecto educativo, es sin duda el trato que tienen con los/as alumnos/as y con las familias. Considero que mi hijo se encuentra en un entorno seguro y familiar. Donde se le valora por lo que es. El proyecto educativo es un proyecto que tiene en cuenta los distintos ritmos de los/as alumnos/as.

Ikastolan gehien baloratzen dudana, bere hezkuntza proiektuaz gain, ikasleekin eta familiekin duten tratua da. Nire ustez, nire semea ingurune seguru eta familiarrean dago. Hezkuntza proiektuak ikasleen erritmo ezberdinak hartzen ditu kontuan.

## Abdul Rehman Ahmed Begum

مجھے جو چیز سب سے زیادہ پسند ہے وہ یہ ہے کہ وہ ہر خاندان کی ذاتی صورتحال کو مدنظر رکھتے ہیں، اور وہ طالب

علموں کو کس طرح سمجھتے ہیں، جس سے وہ اکستول میں آرام دہ محسوس کرتے ہیں۔

Gehien gustatzen zaidana da familia bakoitzaren egoera pertsonala kontuan hartzen dutela, eta ikasleak nola ulertzen dituzten, ikastolan gustura sentitzea lortuz.

میں خاندان اور دوستوں کی سفارش کروں گا کیونکہ وہ طلباء کو بہتر محسوس کرنے میں مدد کرتے ہیں اور انہیں دن بہ دن بہتر بنانے کی کوشش کرتے ہیں۔ مزید برآں، اساتذہ، اپنی تدریس اور سماجی حیثیت سے قطع نظر، سب کی یکساں خدمت کرتے ہیں۔

Ikastola familiakoei eta lagunei gomendatuko nieke, ikasleei hobeto senti daitezen laguntzen dietelako eta hauek, egunez egun hobetzen saiatzen direlako. Gainera, irakasleek, ikasketetan nola doazen eta gizarte-maila edozein dela ere, arreta bera ematen diete guztiei.




## Xabi Varona

Vam triar San Bizente Ikastola perquè els nostres petits tinguessin l'oportunitat de viure i desenvolupar-se en Euskera dins un projecte cooperatiu i familiar dins un entorn rural. La meva parella és euskaldun i jo català, i volíem que els nostres fills poguessin enriquir-se creixent amb la cultura, idioma i context Euskaldun lligat al territori, tal com vam poder fer tots dos a la nostra infància.

San Bizente Ikastola aukeratu genuen txikiek Euskaraz bizitzeko eta garatzeko aukera izan zezaten, landa-inguruneko proiektu kooperatibo eta familiarraren barruan. Nire bikotea euskalduna da eta ni katalana, eta gure seme-alabak lurraldeari lotutako kultura, hizkuntza eta testuinguru euskaldunarekin aberastu ahal izatea nahi genuen, haurtzaroan gu biok egin ahal izan genuen bezala.

Com a fortaleses destacaríem la proximitat del centre educatiu amb el poble i les famílies. Així com la participació activa de la Ikastola en activitats lligades a la vida del municipi i la revitalització de la cultura euskaldun. Per a nosaltres, que els nostres petits visquin el dia de l'Olentzero, Sant Ageda, la Tamborrada, la Korrika... és un autèntic regal.

Indargune gisa, ikastetxeak herriarekiko eta familiekiko duen hurbiltasuna azpimarratuko nuke. Era berean, Ikastolak herriko bizitzarekin lotutako jardueretan aktiboki parte hartzea eta euskal kultura suspertzea. Txiki horiek Olentzeroren egunean, Santagedan, San Prudentzioko tanborradan, Korrikan... bizitzea benetako oparia da guretzat.

TMA
TRABAJOS METÁLICOS ASIER
ACERO INOXIDABLE Y HIERRO
CARPINTERÍA METÁLICA
AUTOMATÍSMOS
MAQUINARIA AGRÍCOLA
BARANDILLAS
ESCALERAS
MANTENIMIENTO EN BODEGAS
COMUNIDADES DE VECINOS
Asier Martínez de la Puente
Roncesvalles, 16. Oyón · ÁLAVA · Tel. 606 741 854
trabajosmetalicosasier@gmail.com
www.facebook.com/asiermetal




## Angela Albuixech eta Asier Garcia

Van concertar una visita a la ikastola de la mà de Gema.Que molt amablement ens va ensenyar les instalacions, i ens va explicar com es desenvolupa el curs diàriament, els objectius que es perseguixen en el centre i la manera d'arribar a ells.

Ens va agradar molt la metodología, i encara que el nostre fill no va anar en eixe moment, varem decidir que quan complira els dos anys era el moment de començar allí. I veure què tal s'aptava. Ja que Nosaltres no som "euskaldunes" i el basc poc o res. El nostre lloc de residencia es a Logronyo. I som una parella formada per un "riojano" y una valenciana.

Encara així pesarem que si Aníbal s'aptava bè,era una millora en la seua educació. Fins ara així ha sigut.

Gure kasuan kasualitatea izan zen. Lagun batek ikastola gomendatu zigun haurtzaindegitik.

Ikastolara bisita bat hitzartu genuen, eta bertan instalazioak ikusi genituen, eta bertatik bertara ezagutu genituen eskolen egunerokotasuna, ikastetxean lortu nahi diren helburuak eta horietara iristeko modua.

Metodologia asko gustatu zitzaigun, eta gure semea une horretan izan ez bazen ere, erabaki genuen bi urte betetakoan bertan hasteko unea zela. Eta nola moldatzen zen ikustea. Izan ere, gu ez gara euskaldunak eta euskara gutxi edo baliogabeak. Logroñon bizi gara. Eta gu errioxar batek eta valentziar batek osatutako bikotea gara. Hala ere, gure semea ondo egokitzen bazen, bere heziketa hobetzea zela pentsatu genuen. Eta gaur egun arte hala izan da.

En primer Lloc, l'ambient familiar que es respira a el centre. Lo próxim que está el personal docente i administratiu.

El fàcil que ens ho han posat sempre per a que el nostre fill s'adapte a cada moment acadèmic que li ha anat tocant. I a nosaltres, el poder comprender i seguir la seua educació.

Les dinàmiques de Treball, com s'arriba a desenvolupar l'anumne a cada moment del seu aprenentatge.

I una cosa que va ser fonamental, es que es un centre laic. Així ens hon van fer saber el primer día ,i així continua sent.

Lehenik eta behin, zentroan arnasten den familia-giroa. Irakasle eta administrarien-gandik zein hurbil zauden.

Zein erraz jarri diguten beti semea egokitzen joan zaion une akademiko bakoitzera. Eta guri haien heziketa ulertu eta jarraitu ahal izatea.

Lan-dinamikak, ikaslea bere ikaskuntzaren une bakoitzean nola garatzen den. Eta guretzat funtsezkoa izan zen zerbait, zentro laiko bat. Hala adierazi ziguten lehenengo egunetik, eta hala da oraindik ere.





## Mercedes Gallego

En 2016 nos mudamos a Oion, desde Córdoba y, buscando centro escolar para mis hijos, que entonces tenían 6 y 8 años, me interesó lo que leí en la página web de la Ikastola sobre su metodología educativa. Teniendo en cuenta que mis dos hijos se incorporaban a la Ikastola sin saber euskera, todo fue apoyo y ayuda para que se pudiesen integrar a su respectivo grupo sin problema.

2016an, Kordobatik Oioneraetorri ginen bizitzera, eta, garai hartan 6 eta 8 urte zituzten nire seme-alabentzako ikastetxearen bila nenbilela, Ikastolaren webgunean haren hezkuntza-metodologiari buruz irakurri nuen eta interesa piztu zitzaidan. Nire bi seme-alabak Ikastolan euskara jakin gabe sartzen zirela kontuan hartuta, dena izan zen laguntza eta babesa, beren taldean arazorik gabe integratu ahal izateko.

San Bizente Ikastola es una gran familia donde los niños se sienten seguros y en constante evolución. Uno de los aspectos más significativos es la relación estrecha entre familias y profesorado.

San Bizente Ikastola familia handi bat da, non haurrak seguru sentitzen diren eta etengabe garatzen ari diren. Alderdi esanguratsuenetako bat familien eta irakasleen arteko harreman estua da.

## Abdellatif Moussif

أنا معجب بالمعلمين على جهودهم والمجتمع التعليمي بأكمله. أكثر ما يعجبني هو أن الجميع يمسكون أيديهم وكأنهم عائلة كبيرة.

Ikastolako irakaslegoa eta hezkuntza komunitate guztia miresten dut egiten duten lanagatik. Gehien eskertzen dudana da ikastolak erakusten duen elkartasuna, guztiok familia erraldoi bat osatzen dugulako.

أوصي بـ ikastola للعائلة والأصدقاء لأنه يوفر الظروف اللازمة للأطفال للتعلم وبسبب الجهد الذي يبذلونه لجعلهم يشعرون بالراحة.

Ikastola gure lagun eta familiako guztiei gomendatzen ari gara. Bertan, gure seme-alabek ikasteko eta etxean bezala sentitzeko beharrezkoak diren baldintzak betetzen baitira


mondragon
Lingua
MLAKOOP
MUGARIK GABE,
EUSKARAZ
HEZI ETA HAZI
HUMANITY AT WORK
MONDRAGON

# San Bizente ikastolatik mundura

## Oihane Faces

Oraintxe bertan, publizitate eta harreman publikoen karrera ikasten ari naiz Bilbon, eta orain konturatzen naiz ikastolan garatu ditudan gaitasun guztiez eta nire ikaskideek eta San Bizente ikastolako irakasleek eman dizkidaten gauza positibo guztiez.

Egia esanda oso eskertuta nago eta nirekin eramango ditut beti.

Ikaskideekin hainbeste denbora partekatzea da maitasun gehienez gogoratzen dudana. Nahiz eta hasieran kosta egin zitzaigun klase guztiak ondo moldatzea, oso desberdinak baikinen; laugarren mailan, ikasketa bidaiari esker, gauza aldatu egin zen eta gaur egun oraindik elkar ikusten dugu.

Oroitzapen onak ditut, duela pare bat aste ikastolako nire klasekide batzuekin hitz egin nuen eta guztiok ados geunden atzera itzultzea gustatuko zitzaigula. Maitasun handiz gogoratzen ditugu gabonak, inauteriak eta just dance-n "linboa" dantzatzeko datak.



## Iker Fernandez-Andes

Betidanik Oionen bizi izan naiz, baina gaur egun Texasen nago Kinesiologiako gradua ikasten.

Ikastolatik maitasun gehienez gogoratzen dudana da bertan lagun onenetako batzuk egin nituela, oraindik nire lagunak direla eta batzuk bizitza osorako izango direla.

Ikastolan oroitzapen asko ditut baina politena irakasle batzuekin nuen harremana da. Irakasle oso onak izan genituen ikastolan eta ez gara konturatzen ikastolatik joan arte.



## Irune Marauri

Fisioterapia Gimbernaten (Kantabrian). Orain Gasteizen bizi naiz.

Maitasun gehienez gogoratzen dudana, klaseko ikaskideak dira batez ere, haiekin ordu asko pasa nituen ikastolan eta gaur egun nire kuadrilako lagunak dira. Hainbeste urte ondoren hori altxor bat da

Oroitzapen onak dauzkat ikastolatik, bai bertako jendearekin eta baita handik kanpo egindako ekintza guztiekin.






## Oihane Vicario



Atzera begiratzen dudanean bakarrik oroitzapen onak bururatzen zaizkit. Klasekide guztiekin erlazio ona neukan eta gehienekin oraindik kontaktua mantentzen dut. Irakasleekin harreman super ona geneukan eta gauzak errazagoak iruditzen ziren.

Orain euskara ez dut asko erabiltzen eta ingelesarekin nahasten dut. Hala ere, berriz erabiltzea gustatuko litzaidake DBH 2ra itzuli beharko banintz ere.



## Lander Etxedona

Ofizioa: Kameralaria

Ikastolatik maitasunez gogoratzen dudana orokorrean zegoen giroa da, ikastola horren txikia denez kurtso desberdiñetako lagunak egiteko aukera ematen du eta oso aberasgarria da. Aldi berean irakasleekin beti izan dugun gertutasuna.

Oso oroitzapen politak ditut, bizitzako etapa oso garrantzitsua da eta ikastolan bizitako momentuek gerora asko markatu didate

## Adrian Cabanas

Ingenieritza elektrikoa eta musikaria (Bilbo).

Maitasun gehienez gogoratzen dudan gauza ikasle, irakasle eta gurasoen arteko harremana da. Beti izan da ikastolan haien artean harreman oso estua eta edozein behar edo arazori aurre egiteko asmoa txikitatik gauzak asko erraztu ditu. Gehien oroitzen ditudan momentuak ikaskideen arteko momentuak dira: atsedenaldietako jolasak, klasekideen arteko barreak...



araba euskaraz '24

# mugaezin

Doinua: irun badaukazu zerbait
Bertsoa: iker olabarrieta herran
(San bizente ikastolako gurasoa)

Ederra da arabako
zortzi petaloen kluba
Ekilore hau hazteko
zenbat lan eta ardura
Izan erdigune edo
azken muturreko muga
Euskararen zirimolan
murgiltzen gara gustura
Auzolanean temati
Oion herritik mundura
sasi guztien gainetik
Araba euskaraz heldu da
Zuzenean nahi baduzu
bizi gure abentura
Ekainaren hamaseian
hurbildu olarizura

www.arabaeuskaraz.eus







Ekainaren 16an zatoz
Olarizura!

